



Eusko Jaurlaritzaren  
Informatika Elkarte

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco

# Bi-fasetako eskaintzaren bidalketa – Izapidetzaileak

1.2 bertsioa

2025eko urtarrilaren 22a

## KontratazioA

Dokumentu hau Eusko Jaurkitzaren Informatika Elkarte Sarena da (EJIE) eta edukia KONFIDENTZIALA da. Dokumentu hau ezin da erreproduzitu, ez osorik ez zati batean, ez beste batzuei erakutsi, eta ezin da erabili entregatzea eragin duten helburuez bestelako helburuetarako, EJIEren alde aurreko baimen idatzirik gabe. Kontratu baten bidez entregatzen bada, kontratu horretan berariaz baimendutakora mugatuko da. EJIEk ezin izango du bere gain hartu dokumentuaren argitalpenean egon daitezkeen akatsen edo hutsegiteen erantzulea.



Dokumentu hau sortzeko erabilitako txantiloia lizentziapean dago

[ARINbide](#) by [EJIE](#) is licensed under a [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported License](#).

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea	Nork onartua:
1.0	2025/01/14	Lehen bertsioa	A.T. KontratazioA	A.T. KontratazioA
1.1	2025/01/15	Bigarren bertsioa	A.T. KontratazioA	A.T. KontratazioA
1.2	2025/01/22	Hirugarren bertsioa	A.T. KontratazioA	Idazkaritza teknikoa

## Contenido

<b>1</b>	<b>Eskaintzen kudeaketa .....</b>	<b>4</b>
1.1	Sarrera.....	4
<b>2</b>	<b>Eskaintzaren bi-fasetako bidalketa kudeatzea .....</b>	<b>5</b>
2.1	Abisu automatikoak.....	5
2.2	Eskaintzen Kudeaketa.....	6
<b>3</b>	<b>Trazabilitatea.....</b>	<b>8</b>
3.1	Trazabilitatearen xehetasuna.....	8

# 1 Eskaintzen kudeaketa

## 1.1 Sarrera

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (16. xedapen gehigarria, 1h)) aurreikusitakoaren arabera, eskaintzak bi-fasetan bidali ahal izango dira; lehenik, eskaintzaren azterna elektronikoa transmititu ahal izango da. Hori jasotzean, eskaintza ondorio guztietarako aurkeztutzat joko da. Eta ondoren, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da.

Hori dela eta, Lizitazio Elektronikoaren Sistemak bi modalitate ahalbidetzen ditu gaur egun eskaintzak bidaltzeko:

- **Zuzeneko bidalketa:** Eskaintzak eragiketa bakar batean sinatu eta bidaltzen dira.

- **Bi-fasetako bidalketa:** Bidalketa bi fasetan egiten da:

1. Lehenengo fasean, eskaera bidaliko da; horretarako, beharrezkoa izango da fitxategi guztiak aldeztu aurretik eranstea. Hatz-marka elektronikoa (Hash) bidalita, eskaintza aurkeztutzat jotzen da, eta, fase hori amaitutakoan, ezin da aldatu eskaintza osatzen duen dokumentaziorik.

2. Bigarren fasean, bidalketa amaitzeko sinadura-prozesua gauzatuko da. 2. fase honetarako, erabiltzaileak 24 ordu dituen hasierako bidalketa-eskaera bidaltzen denetik.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, bi-fasetako bidalketa aukeratzen bada, lehen fasea amaitu ondoren, ezin izango dela lizitaziorako aurkeztutako dokumentaziorik aldatu.

Bestalde, botere adjudikatzaileak ezin izango du jasotako eskaintzen edukia eskuratu enpresa interesdunek bi-fasetako bidalketaren bigarren fasea osatu arte, edo horretarako ezarritako epea amaitu arte.

## 2 Eskaintzaren bi-fasetako bidalketa kudeatzea

### 2.1 Abisu automatikoak

Gaur egun gertatzen den bezala, kontratazio-espeditetako eskaintzak aurkezteko epea amaitzean, plataformak mezu automatiko bat bidaliko die espeditetean zehaztutako idazkariari eta ordezkoiari. Mezu horretan, jasotako eskaintzen laburpena zehaztuko da.

Garrantzitsua da kontuan hartzea eskaintzak aurkezteko epea amaitu bada ere, orain aukera dagoela enpresa batzuek oraindik bi-fasetako bidalketa ez amaitzea, eta eragina izan dezakeela hurrengo irekiera-ekitaldietarako ezarritako epeetan.

**Garrantzitsua:** ezin izango da eskaintzetako edukira sartu interesdunek bi-fasetako bidalketa amaitu arte edo horretarako ezarritako 24 orduko epea amaitu arte.

Finalización de fecha límite de presentación de ofertas / Eskaintzak aurkezteko muga-eguna:



euskadinoreply@euskadi.eus  
jue 09/01/2025 10:21



**plataforma**  
Kontratazio Publikoa Euskadin  
Contratación Pública en Euskadi

<p>Eskaintza aurkezteko muga-eguna igaro da: Expediente: <b>08012025-DOS</b> Kontratuaren xedea: <b>Prueba</b></p>	<p>Se ha cumplido la fecha límite de presentación de oferta: Expediente: <b>08012025-DOS</b> Objeto contrato: <b>Prueba</b></p>
<p>Enpresa lizitatzailak:</p> <p>IFK: F20369153 Sozietate-izena: LKS, S. COOP.</p>	<p>Empresas licitadoras:</p> <p>CIF: F20369153 Razón: LKS, S. COOP.</p>
<p>IFK: A01038090 Sozietate-izena: ODEI, S.A.U. Erregistro-data: 2025/01/08 12:50</p>	<p>IFK: A01038090 Razón: ODEI, S.A.U. Fecha Registro: 08/01/2025 12:50</p>

Erregistro-data: **Bidalketa amaitu zain**Fecha Registro: **Pendiente de concluir el envío diferido** ←

## 2.2 Eskaintzen Kudeaketa

Atal honetan, espedientearen izapidegileak bi-fasetako bidalketen egoera eta aurreikusitako mugaeguna kontsultatu ahal izango ditu.



Dagokion errenkadako abisu-ikonoaren gainean sakatuta, enpresa horrentzako bi-fasetako bidalketaren mugaegunaren xehetasunak kontsultatu ahal izango dituzte.

Bidaltzeko azken eguna, bi-fasetan: 28/01/2025,  
14:57:20

Bi-fasetako bidalketaren fase guztiak bete ez dituzten enpresek ez dute erregistro-datarik izango laburpen-taulan.

Enpresa interesdunak bi-fasetako bidalketaren lehen fasea baino ez badu bete, botere adjudikatzaileak bere eskaintzaren bi-fasetako bidalketaren eskabidearen egiaztagiria izango du eskura.

Ondoren, enpresa interesdunak bi-fasetako bidalketa prozesua amaitzen badu, abisu-ikonoa taulatik desagertuko da, eta erregistro-data adieraziko da. Gainera, espedientearen izapidegileak egiaztagirri osoa deskargatu ahal izango du, dagokion sarrera-erregistroaren zenbakia barne.

Enpresak eskaintza bi-fasetako bidalketa egiteko ezarritako epearen barruan betetzen ez badu, hori kolorez nabarmenduko da, espedientearen izapidegileak kontuan har dezan.

Enpresa guztientzat bi-fasetako bidalketa-epea amaitutakoan, jasotako eskaintza guztien agiriak ireki ahal izango dira.

## 3 Trazabilitatea

### 3.1 Trazabilitatearen xehetasuna

Eskaintzen zuzeneko bidalketarekin gertatzen den bezala, botere adjudikatuzaileak aukera izango du bi-faseetako bidalketek jarraitutako trazabilitatearen xehetasuna kontsultatzeko. Hori dela eta, bi ekintza berri sartu dira laburpen-taulan:

- **Bi-fasetako bidalketaren eskaera:** Enpresa interesdunak eskaintzaren bi-faseetako bidalketa eskaera bidali du lehen fasean, eta 24 orduko epea izango du bidalketa osatzeko.

- **Bi-fasetako bidalketaren amaiera:** Bi-faseetako bidalketaren bigarren fasea amaitu da, eta eskaintza osorik erregistratu da.

The screenshot shows the 'Trazabilitatea' (Traceability) section of the Egie system. The interface includes a sidebar with navigation options, a main content area with filters and a table of actions. Red boxes highlight the 'Bi-fasetako bidalketaren eskaera' and 'Bi-fasetako bidalketaren amaiera' options in the filters and the corresponding rows in the table.

Ekintza	Izena	Data	Beste datu batzuk
Bi-fasetako bidalketaren amaiera		2025/01/27 14:44	Nork bidaltzen duen: CIUDADANO Noren izenean: LKS, S. COOP. Erregistro-liburuaren zenbakia: 2025RTE00001557
Bi-fasetako bidalketaren eskaera		2025/01/27 14:35	Nork bidaltzen duen: CIUDADANO Noren izenean: LKS, S. COOP.